

Amets Zurutuza Eskisabel

Emaila • 1 saria



Kaixo, Amets naiz eta 11 urte ditut. Beasaingo ikastolako ikaslea naiz eta 6.mailan nago. Ekintza ezberdinetan parte hartzen badut ere dantza eta zaldian ibiltzea dira nire gustokoenak. Idaztea atsegin dut baina askoz gehiago irakurtzea, batez ere misteriozko liburuak.

Bidaiatzea ere asko gustatzen zait, toki eta jende ezberdinak ezagutzea eta horrek idatzi behar dudanean asko laguntzen dit.

Ea zuei ere gustatzen zaizuen nire kontakizuna.

BI HITZ

Kaixo ama,

Nahasturik nago, barruak dantzan ditut eta egia zer den ere ez dakit. Nola da posible bi hitzek bizia hankaz gora jartzea?

Duela 12 urte jaio nintzen (edo hori uste dut behintzat) eta nire bizi guztia gezur huts bat dela pentsatzen dut. Lehenago koloretakoa zen bizia gris bihurtu da momentu honetan.

Eta danba danba bi hitz horiek etengabe buruan....

Denak saiatu dira ni lasaitzen, baina ezin. Ez da posible inor baretzerik burua eta bihotza bi hitzekin korapilatzen zaizkizunean .

Ez dakit ondo zein naizen, ez dakit ondo zer egiten dudan hemen. Dena kasualitatea ote?

Oraintxe bertan nire bizitza hankaz gora erori da, nor izaten laguntzen didan enborretako bat erori da. Nola izan ni bi hitz hauek entzun ostean?

Eta bi hitz zast- zast bihotzean... labana bat sartu izan balidate bezalako mina nire barruan.

Hau amets gaiztoa. Nork gehiago ote daki? Lagunek? Irakasleek? Noiztik? Eta jakingo balute, zergatik beraiek bai eta nik ez? Ez badakite, nola esan? Nola erreakzionatuko dute?

Bi hitz firi- fara belarri barruan...

Urrun entzuten dira beste hitzak, besteen ahotsak... Beti gertu izan ditudan jenderenak. Esan didatena burutik kendu nahi dut eta gaurkoa ahaztu.

Eta dar-dar gorputzak... Hankek indarrik ez balute bezala bi hitz horien pisua eusteko. Karga gehiegi nire gorputzean. Gustoko dudan butaka gorrian eseri naute baina ez dut beti sentitzen dudan erosotasuna bilatu.

Nire ahoa mutu.... garrasi egin nahi dut, eztarriko korapil sendo hau askatu

baina haizea falta zait nire ahots kordak mugitzeko. Mila galdera ditut egiteko, zuri batez ere. Baina non zaude? Zergatik? Noiztik? Gogoratzen al nauzu? Maite nauzu?

Nik burutik kendu ezinda nabilen bi hitz hauek zurekin banatu nahi ditut, zurekin ulertu eta zu ulertu, besteek ni ulertzea nahi dudan bezala. Nire izena jakin, nire sorterrria ezagutu, nire enborrharen zurtoin bat bilatu eta orduan nire erabakiak hartzen hasi.

Ez dakit eskutitz hau nora bidali, zeini bidali, ez dakidalako zein den nire "benetako" ama. EZ dakizu benetan zer nolako mina egiten duen bi hitz hauek entzuteak:

"adoptatua zara"

Irati